

Prensa Oharra 14/03/2018

BELARTZA 2 GELDITU PLATAFORMA

www.belartza2gelditu.blogspot.es



BELARTZA 2-KO PARTAIDETZA PROZESU POLEMIKOA

Atzo Donostiako Udalbatzan **Belartza 2-ko Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala tramitatzeko “Herritarren Partaidetza Programa”** deitu ziotena ospatu zen. Ekitaldiaren helburua proiektuaren zirriborroaren aurkezpena zen eta herritarrek polemika, salaketa eta gaitzezpenez josi zuten.

Izan ere, bai atzoko deialdia eta baita aztergai zen dokumentua ere astebeteko aurrerapenez iragarri zituen Udalak bere web orrian. Gutxi balitz, pasa den martxoak 7ra arte herritar eta kolektiboek ez zuten honen berri izan, Añorgako portal bakan batzuetan Udalaren orri informatibo batzuk agertu ziren arte. Zirriborroaren inguruan ere hainbat salaketa egin zituzten auzotarrek, eduki teknikoak ulergaitza egiteaz gain astebeteko epeak ez duelako honen azterketa eta abordatzea ahalbidetzen; jakinda bilkura hau dela proiektuaren osaketan herritarron ekarpenak jasotzeko aukera bakarra.

Lurzoruaren legeak dioenez Plan Orokorrak aldatzen direnean Partaidetza Programa bat burutu behar da eta duen garrantzia dela eta, programak herritarrek honen berri izatea eta **dokumentuaren osaketan haien ekarpenak jasotzea ziurtatu behar ditu.**

Belartza 2-ko makropoligonoaren proiektuak (209.000m²-ko zabalera) udalerrri osoan eta arlo askotan du eragina: komertzio txikiengan, mugikortasunean eta baita hiriaren *eraztun berdearen* suntsiketan ere; izan ere, landa-eremua urbanizatzeak kalte larriak eragingo lituzke fauna eta flora babestuak dauden eremuan.

Garberako HAPO-ak lur komertzialaren 20.000 m²-ko zabalpena suposatzen du eta gainera eskaintza gehiago zabaltzen da Ilunbeko 35 000m²-ko Plan Bereziarekin. Belartza 2ren zabalera, Anoetako 24 estadioren baliokideak, Garberaren zabalpenaren komertzia zoruaren azalera laukoiztu egiten du. Argi dago Udal Gobernuaren asmoa zein den, erloju kontra **azalera haundiko saltokien sorrera onartzea, Eusko Jaurlaritzak hauen eraikitzea mugatzen duen PTS-aren Jarduera Ekonomikoen artikuluen berridazketa onartu baino lehen.**

Saltoki erraldoi honen eraikuntzaren hirigintzako tramitazioa hasierako fasean dago Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Ebaluazio Estrategikoan eta beraz, honen zirriborroan aldaketa esanguratsuak egin daitezke. Izan ere ingurumen ebaluaketak proiektuan gizarte eta ingurumen izango dituen talkak neurtu eta neurtzen baititu. Bertan azaleratu zenez aurkeztutako borradoreak etzitun barneratzen ez ekonomiko ikerketarik, ez mugikortasun estudiorik ezta euren eraginen ondorioko inguruan egindako lanik; aurkeztutako proiektu eta planoak etzituzten barneratzen Eusko Jaurlaritzak babestu beharreko 60.000m² zuhaitz eta basorik urbanizaziotik kanporatzen .

Sinisgaitza gertatzen da partaidetzarako aukera bakarra ematen duen HAPOren aldaketarako borradorearen aurkezpenak, proiektuaren eraginak eta talkak ez neurtu, ez ikertu, ez barneratu egiteak, izan ere herritarrek ezin baitituzte ezagutu proiektuaren dimentsio erreala.

Udalbatzara bertaratutakoek Partaidetza programa, astebeteko aurrerapena izan zuen deialdi polemikoa eta baita edukia bera ere, etikoki gaitzesgarriak eta politikoki onartezinak zirela esan zuten. Bai herritarrek eta baita Belartza 2 Gelditu plataformak ere, hiru eskaera egin zizkieten udal gobernuari: herri partaidetzarako bigarren deialdi bat, idatzizko ekarpenak onartzea eta arduradun politikoen Añorgan aurkezpen bilera bat egitea. Enrique Ramos hiru eskakizunetara uko egin zion nahiz eta partaidetza teknikariek, udal barne protokoloak ez eperik ez berriro vilera egiteko mugarik ez ziola jartzen bertan aitortu zuten.

Belartza 2 Gelditu Plataformak argi salatu du Belartza 2 makropoligonoaren HAPO-rako Partaidetza Programa eskaparate bat besterik ez dela izan. Herritarron partaidetzarako alferrik izateaz gain, udalbatzak estrategikoki jokatu duela tramite hutsa izan den bilkura honekin epeak bizkortzeko, Eusko Jaurlaritzak makroproiektua geldiarazi dezakeen PTS-aren moldaketak egin aurretik.



Belartza 2 proiektuaren eremua